



❖ CHILLIDA-LEKU Gaur itxiko ditu ateak

Gaur goizeko 13:00etan itxiko dute Chillida-Leku museoa, eta ez dute zehaztu noiz irekiko duten berriz. ||

◆ FUTBOLA

Labaien memoria gaur, Zubipen

Juantxo Labaien zenaren ome-
nez, Labaien memoria jokatu-
ko dute gaur Zubipen. Torneo
triangularra izango da, eta hiru
taldek hartuko dute parte:
Hernanik, Realak, eta Lengoa-
koak. Aurreneko partidua
15:30etan izango da, Real eta
Lengokoaren artekoa; bigarre-
na 16:30etan, Hernani eta
Realaren artekoa; eta hiruga-
rena 17:30etan, Hernani eta
Lengokoaren artekoa. ||

❖ ERRONDA

Urte Zaharreko erronda gaur, Kaxkoan zehar

Ohitura Zaharrak Abesbatzak
Urte Zaharreko erronda egin-
go du gaur, Kaxkoan barrena.
Trikitixaren doinuek lagun-
duta, bertso, koplak eta kantuz
agurtuko dute urtea. Arra-
tsaldeko 17:15etan abiatuko
dira, Udaleko arkupeetatik. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Mus txapelketa gaur, Gaztetxean

Gazte Asanbladak mus txapel-
keta antolatuko du eta gaur
jokatuko da, Gaztetxean,
16:30etan, ondoren errifan
zozketa egingo dute. ||

❖ MUSIKA

RocKaiet gaur, Itxaskin

Dj RocKaiet ariko da gaur
Itxaskin, 01:00etatik aurrera
musika jartzen. ||

❖ ZINEA

Pelikula, etzi eta astelehenean

'Tron: The Legacy' jarriko
dute etzi eta astelehenean
Biterin, 17:00etan. ||

Kalitatezko zigilua izango dute Hernaniko bost sagardok epe laburrean, bi marka ezberdin.

Sagardogintzaren munduan denen ahotan dabilen gaia da, eta Hernaniko Kronika horren berri ari da ematen. Atzoko alean Kalitatezko Sagardo Marka pribatuaren nondik norakoak azaldu zituen Altzuetako Ibon Alkortak. Gaur sagardoarentzako Eusko Labelaren berri emango du Iparragirreko Arantxa Eguzkitzak.

ARANTXA EGUZKITZA-Iparragirreko sagardogilea eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria:

«Eusko Labela duen sagardoa %100 bertakoa izango da»

HOGEITA zortzi sagardogilek Eusko Labelaren aldeko aposta egin dute, sagardoa bertakoa eta kalitatezkoa dela ziurtatzeko helburuarekin; hogeita zortzi horien artean 19 gipuzkoarrak eta 9 bizkaitarrak; tartean, Itsasburu eta Iparragirre.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 2000garren urtetik ari da lanean sagardoaren kalitatezko markaren alde. Arantxa Eguzkitza Lehendakariak eta Iparragirreko sagardogileak azaldu duenez, orduko lehendakariak saiakera serioa egin zuen sagardoaren Jatorri Izendapena lortzea posible izan zedin, baina ez zen hala izan. Elkarteak orain bost urte ekin zion berriro ere erronkari. «ibilbide luzea ari da izaten. Sagardogile multzo batek Marka Pribatura jotzeko erabakia hartu du eta beste sagardogile multzo batek Eusko Labelera jotzea erabaki dugu, etorkizunean Jatorri Izendapenera jotzeko helburuarekin. Baina horrez gain, esan behar da sagardogile multzorik haundiena oraingoz ez batean ez bestean ez dagoela».

Helburua, %100 bertako sagarra izatea

Kalitatezko sagardoaren helburua da %100 bertakoa dela ziurtatzea, hala jakinarazi du Arantxak: «kontsumitzaileei Labela duen sagardo guztia



Argazkia: Nagore Legarreta
Arantxa Eguzkitza.

bertako sagarrarekin egin dela ziurtatu nahi diegu, eta horretarako frogatu egin behar da. Labelaren araudia egiteko mahai tekniko bat osatu da sagar eta sagardo ekoizleekin, Administrazioetako arduradunekin eta sektoreko eta Labelako teknikariek. Eta Kalitatea Fundazioak (Labelak) sagardoaren prozesu guztia kontrolatzen du, sagarrondotik hasi eta enbotilatzen den arte. Kontrol zehatza egiten da hasieratik bukaerara arte».

Label Ziurtagiria sagardoa botilatzen denean lortuko da, eta zigilua lortzeko sagardoak berak ere prozesu eta azterketa batzuk pasako ditu: «ez dira azterketa analitikoak bakarrik izango: Labelera dijoazen

sagardoak kata edo dastaketa prozesu zorrotz bat ere pasa behar dute. Azterketa guzti horiek gaintzen dituen sagardoak bakarrik izango du Eusko Label zigilua». Labelako sagardoaren aldeko apustua egin dute sagardogileek bi sagardo mota izango dituzte: Labelakoa %100 bertako sagarrarekin egin, eta Labelakoa ez dena.

Bertako sagasti eta sagarraren aldeko apustua
Eusko Labela duen sagardo guztia bertako sagarrarekin egingo da, Arantxak azaldu duenez, bertako sagar produkzioaren aldeko apustua ere egin dutelako: «bertako sagarrak abantaila asko ditu sagarraren kalitatea-

ri dagokionean: sagastia eza gutzen dugu, kontrol zorrotzagoa egin dezakegu, heltze puntu egokia bilatzeko aukera ematen du, bildu eta tolarera segituan etorri liteke sagar hori, eta abar. Horrez gain, bertako sagar-ekoizleen lana bultzatu nahi dugu, sagarrarekin baserrirako irtenbide bat izan dezaten, terrenoak zaintzeko modua izan dezaten, azken batean baserrirako negozio iturri izan dadin. Guzti hau aspalditik ari gara sektorean hausnartzen eta esfortzu haundia ari gara egiten, eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dugu. Bide berri bat zabaldu dugu, bertakoari balioa ematen dion bidea».

Proba pilotuak hasi dira

Oraindik ez dute fetxa jakinik produktua merkaturatzeko, baina aurtengo uztarekin hasi dira Labelako sagardoaren proba pilotuak egiten: «proba pilotuak egiten hasi gara. Probarako erabili ziren sagastiak hasieratik inspektionatu ziren, sagarra, tolarera lana, kupelak prezintatu, prozesu osoa... Ez dakigu aurtengo kampainan Labeldun sagardoa merkaturatuko dugun, baina bide onetik goaz. Gauzak ondo egin nahi ditugu, poliki. Ilusioa dugu, baina gauza bat da nahi izatea eta bestea posible izatea. Inportanteena da etorkizunerako gauzak ondo egitea, eta horretan ari gara». ||

RIOJA TABERNA

2010. urtea ere pasa zaigu,
Urte Berri On guztioi!

kale nagusia, 6

URRATS
OINETAKOAK

KALITATEZKO
AUKERA ZABALA

URRATS-eko lagunok
eskerrak eman nahi dizkiegu
gure bezeroei, urte guztian eman
diguten konfiantzarengatik.

Urte Berri On guztioi!!

Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez:** **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Urteari eguraldi lasaiekin emango diogu amaiera. Hego-haize leuna izango da eta zeruan goi eta erdi mailako lainoak nagusituko dira. Min.12° / Max.14°.

BIHAR Urteberriarekin batera eguraldi aldaketa dator. Goizean lainoak eta ostarteak tartekatuko dira, baina arratsaldetik aurrera, haizea iparraldetik sartuko da eta euria egingo du. (euskaime)

❖ SUTEA URNIETAKO IPARLAT ENPRESAN

KEPA URREAGA - AGERRE BASERRIKO ESNE-EKOIZLEA:

«Esnea biltzen jarraituko dutela esan digute»

URNIETAKO Iparlat esne faktoriak su hartu zuen asteazken gauean, 22:00ak inguruan. Suhiltzaileak gau osoan eta atzo egun guztian zehar aritu ziren sua itzaltzen. Kea eta erre usaina Urnieta osoan zehar zabaldu zen, eta Hernanira ere berehala iritsi zen, hego haizearen eraginez. Suteak enpresako biltegia kixkali zuen, eta produkzio planta erre ez bazen ere, kalte-tua geratu zen. Iparlateko lehen-dakariak adierazi zuenez, hila-bete inguru pasako da enpresa bere onera etorri arte.

Hernanin hiru esne-ekoizle-
ren esnea eramaten dute Iparlat enpresara: Agerre, Gonagorri eta Argindegi baserrietakoa. Hernaniko Kronikak Agerre baserriko eta EHNE sindikatu-
ko juntako kidea den Kepa Urreagarekin hitz egin du, suteak beraiergan izango duen ondorioa jakiteko. Kepak azaldukoaren arabera, enpresak esnea biltzen jarraituko dietela adierazi die: «produkzio plantak kalteak jasan ditu, baina enpresak esnea biltzen jarraitu-



Sutea atzo arratsaldean oraindik ez zegoen guztiz itzalia.

ko duela adierazi digu. Bi egunetik behin pasatzen dira base-
rri bakoitzetik esnea jasotzera, eta ondoren, Iparlaten egiten dute prozesu guztia. Kasu honetan, suaren eraginez esnea Espainiako beste esne enpresa batzuetara eramango dutela esan digute. Ez dira egun onak horretarako, gaur Urte Zahar eguna da, bihar Urte Berria eta etzi igandea. Hala ere, irtenbide hori posible izatea espero dugu. Kasurik okerrean jarrita, esnea beste zentraletara eramatea lortuko ez balute, ezingo lukete bildu, Iparlaten

ez baita dena sartzen».

«Inoiz izan den momentu txarrenean gaude»

Aurtengoa ez da urte onena izan esne-ekoizleentzat, eta ezta azken urteak ere, hala adierazi du Kepak: «inoiz izan den momenturik txarrena ari gara bizitzen. Egoerak horrela jarraitzen badu, esne-ekoizleen %50ak ez ditu beste bi urte iraungo. Pentsua sekula baino garestiago dago, eta esnea aspaldiko prezio bajeanean ordaintzen ari dira. Gauzak aldatzen ez badira, etorkizuna beltza da». ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Ateak eguneko 24 orduetan irekitzen dira. Zerrajerua. 622 463 928

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. 677 513 257

Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lan egiteko eskaintzen da: sagardotegitan, ostalaritza... Harremanetarako: 617 630 528

Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jeiki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA.

Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturapatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapija,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

† ASUNCION CLEMENTE LOZARES

ANDREA
(Juan Jose Sagarnaren Alarguna)
Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: M^a Rosa, M^a Elena, M^a Antonia eta Mikel Alonso, Juan Jose eta Maria Libanio; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2010eko abenduaren 31n



† ASUNCION CLEMENTE LOZARES

ANDREA
(Juan Jose Sagarnaren Alarguna)
- Goian bego -

Nahiz eta gure artetik urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean

EUGENIO ETA MAITE, IÑIGO, EDURNE, BEÑAT ETA JUNE

Hernanin, 2010eko abenduaren 31n



I. URTEBETETZEA

† EMILIA LOYARTE LOYARTE

ANDREA
(Agustin Zabalen alarguna)
2009ko abenduaren 31n hil zen Aranon, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.
-Goian bego-

Seme-alabak: Xanti, Joxe Mari eta Mari Paz, Roke eta Sagrario, Fermina eta Joxe Manuel, Mari Paz eta Pako, Joxe Juan eta Kristina; bilobak, bilobak, anaiak, koinatak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **ETZI, IGANDEA, goizeko 10:00etan, Aranoko MARTIN DEUNAREN** parroki elizan egingo **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Aranon, 2010eko abenduaren 31n

Helbidea: Lorentxon Borda baserria



❖ AAM

Urteko azkeneko elkarretaratzea gaur, Plazan

GABONETAN, Hernanin, preso eta iheslarien aldeko ekimenak egiten ari da Amnistiaren Aldeko Mugimendua. Gaur urteko azken elkarretaratzea egingo dute, berezia, Plazan, 20:00etan abiatuta. AAM adierazi duenez: «2010 joan da, eta gaur, urteko azken ostirala eta azken eguna ditugu. Euskal preso politikoek beste 365 egun beltz ezagutu dituzte. Ahazteko moduko egunak, non eskubideen urraketa etengabekoa izan den».

Hala ere, itxaropena badutela adierazi dute Kronikara bidalitako oharrean: «kandelak eskuetan eta itxaropena gure buruei iltzatuta dauzkagu, aro berri bat zabaldu nahi dugu. Horretan ari gara buru belarri,

eskubide guztien errespetua ardatz nagusi izango lukeen fase berri bat. Baita, gure senide euskal preso, iheslari eta errefuxiatu eta deportatu politikoena ere. Aurrera pausak emateko garaia da. Bereziki txalotzen dugu Egin Dezagun Urratsa ekimenak sortu duen elkartasuna eta mobilizazio giroa. Elkartasun olatu paregabea ari gara sortzen, eskubideen aldeko tsunamia!».

Urtarrilaren 8an, manifestazioa
Urtarrilaren 8an Bilbon egingo den manifestaziorako deia egin dute: «kaleak bete behar ditugu, urratsa eman behar dugu guztion artean». 17:30etan izango da, eta joateko, autobus zerrendak jarri dituzte: Goiz Argin, Riojan, Oinddin eta Garinen. ||

GERARDO BERMEJO
50 urte betetzen dituzulako
ZORIONAK
Jarraitu horrela, ez zaitetz aldatu!
ZURE SEMEEN ETA ANDREGAIA IZANDAKOAREN PARTETIK

11korapilo
ZATOK II

GABONETAKO OPARI EZINHOBEA !!
MERKATUKO PLANTXA ONENAK !!

PASADA BATEAN LIXATU EDO KIZKURTZEN DUTE, ILEA ERRESPEATATUZ.

DISEINUTAN AUKERA ZABALA

ZATOK ETA PROBATU KONPROMEZURIK GABE !!

NAFAR KALEA, 16 - 943 57 99 76. UXUE LEGARRETA: 697 60 59 66.

zumardik
jateetxea

Orkologa, 2 behea - HERNANIN
Tel: 943 33 60 56

Zumardik eskerrak eman nahi dizkie urte guztian bezero izan diren guztiak.

Urte Berri On!